

GESTIO EKONOMIKOAREN / ARAUBIDE OROKORRA

I. TITULUA. GUNE ORGANIKOAK ETA BANKU KONTUAK

I. KAPITULUA. GUNE ORGANIKOAK ETA BEREN GESTIOAREN ARDURA

1. artikulua. Gune organikoen motak

UPV/EHUK gastua kudeatzeko egitura deszentralizatua dauka. Bi motatako gastu guneak ditu.

1. Gune organiko iraunkorrak. Unibertsitatearen egitura organikoaren parte dira. UPV/EHUko Estatutueta 10. artikuluari jarraiki, honako hauek dira: unibertsitate campusak, eskolak eta fakultateak, sailak, unibertsitateko ikerketa institutuak, doktorego eskolak, Ikerguneak eta sor litezkeen bestelako egiturak, gehi administrazio zerbitzu orokorrak, aipatutako egituren zerbitzuan aritzen direnak, IV. tituluan araututakoak eta administrazio eta zerbitzuetako bestelako unitateak.
2. Aldi baterako gune organikoak. Helburu jakin batzuetarako (ikerketa edo irakaskuntzari lotutako xede jakin baterako, kontratuak burutzeko eta abar) tarte zehatz baterako sortu eta beren egitekoa amaitutakoan ixten diren guneak dira.
3. Aldi baterako gune organikoak gune organiko iraunkor baten menpe daude.

2. artikulua. Gastu guneetako gestio ekonomikoaren arduradunak.

1. Gune organikoetan kudeaketa ekonomikoaren bi arduradun egongo dira. Horiek elektronikoki sinatu beharko dituzte, esinadura-ren bidez, kontratu txikiak eta organiko horien kontabilitate-agiriak. Kontratu txikien kasuan, sinadura horiek kontratu txiki hori gauzatzeko baimena dira, eta, kontabilitate-agirien kasuan, dagozkien gastuak kontabilizatzeko eta ordaintzeko baimena adierazten dute.
2. Gastuen oniritziak sustatzaileak sinatu beharko ditu, dela aurreko paragrafoan adierazitako arduradunetako bat, dela beste bat. Sustatzaile horrek (IIP edo TEKAZEL) fakturaren adostasuna sinatuko du esinaduraren bidez.
3. Gune organikoen funtzionamendu, kudeaketa, administrazio eta abarrerako arautegietan zehaztutakoari traba egin gabe, gestio ekonomikoaren bi arduradunak hauek izango dira:

4 digituko gune organikoak:

• A.1 Ikastegiak

- Lehen sinatzailea: administratzailea, administrazio burua edo koordinatzailea.
- Bigarren sinatzailea: dekanoa edo zuzendaria.

• A.2 Sailak

- Lehen sinatzailea: idazkari akademikoa.
- Bigarren sinatzailea: zuzendaria.

• A.3 Campuseko errektoreordetzak

- Lehen sinatzailea: campuseko gerenteordea.
- Bigarren sinatzailea: campuseko errektoreordea.

• A.4. Gainerako errektoreordetzak

- Lehen sinatzailea: errektoreordea.
- Bigarren sinatzailea: errektoreordea ez dagoenerako aurreikusita dagoen lehen ordezkia (errekorego taldearen funtzionamendu arloak zehazten dituen erabakiaren arabera).

- **A.5 Gerentzia**
 - Lehen sinatzailea: pertsonaleko gerenteordea
 - Bigarren sinatzailea: gerentea
- **A.6 Institutuak**
 - Lehen sinatzailea: institutuko idazkaria.
 - Bigarren sinatzailea: institutuko zuzendaria.
- **A.7 Katedrak**
 - Lehen sinatzailea: katedrako zuzendaria.
 - Bigarren sinatzailea: Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea.
- **A.8 Zuzendariak**
 - Lehen sinatzailea: arloko zuzendari ekonomikoa.
 - Bigarren sinatzailea: zuzendaritza horren arloko errektoreordea.
- **A.9 Ikerketako Zerbitzu Nagusiak**
 - Lehen sinatzailea: Ikerketa Zerbitzu Nagusietako burua (TEKAZEL).
 - Bigarren sinatzailea: Ikerketa Zerbitzu Nagusietako zuzendaria (IIP).
- **A.10 Zerbitzu zentralak** (3910 gune organikoa):
 - Lehen sinatzailea: Kontabilitate eta Aurrekontuen gerenteordetza.
 - Bigarren sinatzailea: gerentea.
- **A. 11 Gainerako zerbitzuak**
 - Lehen sinatzailea: zerbitzuko burua edo errektoreordeak izendatzen duen pertsona.
 - Bigarren sinatzailea: zerbitzuaren eskumena duen errektoreordea.
- **A. 12 Odontologia Klinika**
 - Lehen sinatzailea: klinikako zuzendaria.
 - Bigarren sinatzailea: Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea.
- **A.13 Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa**
 - Lehen sinatzailea: klinikako zuzendaria.
 - Bigarren sinatzailea: Zuzenbide Fakultateko dekanoa.
- **A.14 Ikerketa mistoak (2):**
 - Lehen sinatzailea: Ikerketa mistoaren zuzendaria
 - Bigarren sinatzailea: Ikerketa mistoaren gerentea
- **A.15 Plentziako Itsas Estazioa, PIE-UPV/EHU**
 - Lehen sinatzailea: PIE-UPV/EHUko idazkaria
 - Bigarren sinatzailea: UPV/EHUko zuzendaria
- **A.16 Fabrikazio Aurreratuko Zentroa**
 - Lehen sinatzailea: Teknologia Batzordeko kidea
 - Bigarren sinatzailea: Zentroko zuzendaria
- **A.17 Doktorego Eskola**
 - Lehen sinatzailea: Doktorego Eskolako Administrazio burua
 - Bigarren sinatzailea: Doktorego Eskolako zuzendaria

- **A.18 Ikerguneak**
 - Lehen sinatzailea: Zuzendariordea edo idazkaria
 - Bigarren sinatzailea: Ikerguneko zuzendaria
- **A.19 Biblioteka Nagusia**
 - Lehen sinatzailea: Zuzendariordea
 - Bigarren sinatzailea: Zuzendaria
- **A.20 Campusetako Bibliotekak**
 - Lehen sinatzailea: Zerbitzu edo Zentroko **arduraduna**
 - Bigarren sinatzailea: Zuzendariondokia

10 digituko aldi baterako gune organikoak

- **B.1 Ikerketarakoak, ez «RETE» ez «INVE» amaitzen ez direnak**
 - Lehen sinatzailea: ikertzaile nagusia. Ikertzaile nagusi bat baino gehiago balego IKERTUn agertzen den ikertzaile nagusia izango da.
 - Bigarren sinatzailea: katedra, institutu, ikastegiko edo dena delako egiturako zuzendaria.
- **B.2 «RETE» edo «INVE» amaitzen direnak**
 - Lehen sinatzailea: dagokien gune organiko estrukturaleko lehen sinatzailea.
 - Bigarren sinatzailea: dagokien gune organiko estrukturaleko bigarren sinatzailea.
- **B.3 Ikerketako Zerbitzu Nagusietakoak**
 - Lehen sinatzailea: Ikerketako Zerbitzu Nagusietako burua.
 - Bigarren sinatzailea: Ikerketako Zerbitzu Nagusietako zuzendaria
- **B.4 Doktoregokoak, berezko tituluetakoa eta titulu ofizialetakoak**
 - Lehen sinatzailea: titulu edo programa bakoitzaren arduraduna.
 - Bigarren sinatzailea: saileko, ikastegiko edo Master eta Doktorego Eskolako zuzendaria.
- **B.5 Ikastegiak**
 - Lehen sinatzailea: administratzailea, administrazio burua edo koordinatzailea.
 - Bigarren sinatzailea: dekanoa edo zuzendaria.
- **B.6 Ikerketarako ez diren katedretakoak**
 - Lehen sinatzailea: katedrako zuzendaria.
 - Bigarren sinatzailea: Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea.
- **B. 7 Ikerketarako ez diren institutuetakoak**
 - Lehen sinatzailea: institutuko idazkaria.
 - Bigarren sinatzailea: institutuko idazkaria.
- **B. 8 Campusekoak**
 - Lehen sinatzailea: campuseko gerenteordea.
 - Bigarren sinatzailea: campuseko errektoreordea.
- **B. 9 Kliniketakoak, zuzendaritzetakoak, errektoreordetzetakoak, zerbitzuetakoak**
 - Lehen sinatzailea: dagokien gune organiko estrukturaleko lehen sinatzailea.

- Bigarren sinatzailea: dagokien gune organiko estrukturalako bigarren sinatzailea.

- **B.10 Barne deialdietako erabakien ondorioz sortutako sailak:**

UPV/EHUn badira gune funtzional batzuk, barne deialdiei dagozkienak. Deialdiotan UPV/EHUko irakasleei jarduera jakin batzuetarako zenbatekoak esleitzen zaizkie. Zenbateko horiek kudeatzeko gune organiko berriak sortzen dira, sail baten menpe geratzen direnak. Halakoetan hauek izango dira sinatzaileak:

- Lehen sinatzailea: zenbatekoa esleitu zaion IIPa.
- Bigarren sinatzailea: saileko zuzendaria.

- **B.11 Sailetako bestelako gune organikoak**

Batzuetan gune organikoak sortzen dira erakundeekin sinatutako hitzarmenetatik datozen diru funtsak erregistratzeko. Halakoetan hauek izango dira sinatzaileak:

- Lehen sinatzailea: kasuan kasuko jardueraren ardura duen IIPa.
- Bigarren sinatzailea: saileko zuzendaria.

4. Aldi baterako gune organiko baten lehen arduraduna unitate horren gaineko ardura duen unitate organikoaren lehen arduraduna ere baden kasuetan, aldi baterako gunearen bigarren arduraduna ikastegiko batzarrak, saileko kontseiluak edo institutuko kontseiluak hautatuko du bere baitako kideen artean.
5. Aldi baterako unitate organikoa ikastegi bateko jardueraren baterako eratuko balitz, lehenengo arduraduna ikastegiko administratzailea izango da, eta bigarren arduraduna ikastegiko dekanoa edo zuzendaria.
6. Aurreko puntuetan jaso ez diren kasuetan, aldi baterako gastu gunearen arduradunak gerenteak izendatuko ditu.
7. Ez badago, dagokion araudian jasotakoa izango da ordezeko sinatzailea.

II. KAPITULUA. Gune organikoak sortu, aldatu eta ixtea.

3. artikulua. Gune organiko bat sortu edo aldatzea.

Kasuan kasuko errektoreordetza, unitate, zerbitzu edo dena delakoak, jardueraren arabera, eskabidea egingo dio Kontabilitate Zerbitzuari; bestela, zuzenean ere egin daiteke, kudeaketa gunea sortu edo aldatzeko erabakia hartu duen organo eskudunaren erabakiaren kopiarekin batera.

4. artikulua. Aldi baterako gune bat sortu edo aldatzea.

1. Aldi baterako gune organikoak ondoko baldintzak gertatzen direnean sortuko dira:
 - a) UPV/EHUk edo beste erakunde batzuek onartutako ikerketa proiektuak abian jartzen direnean.
 - b) Baliabide batzuk izendatzen direnean jarduera eta xede jakin baterako erabiltzeko. (ikastaroak, biltzarrak...).

Bi kasuetan, diru-laguntzak aldizkakoak badira, deialdi bakoitzerako organika bat sortu beharko da.

Oro har, jarduera bakoitzeko organika bat sortu beharko da.

2. Aldi baterako gune bat sortzeko eskabidea organo hauek egingo dute:

- a) Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko eta Ikerketaren arloko errektoreordetzek egingo dute eskabidea gunea sortu behar denean ikerketa proiektuak egiteko, kontratuak, hitzarmenak, zientzia, teknika edo artearen arloko lanak egiteko eta prestakuntza ikastaroak emateko.
- b) Graduondoko ikastaroak, master ofizialak, doktoregoak, berezko tituluak eta bestelako ikastaroak egiteko guneak sortu behar direnean, eskabidea Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren errektoreordeak egingo du.
- c) Beste edozein errektoreordetzak.

Aldi baterako gune organiko bat sortu edo aldatu behar denean, Kontabilitate Zerbitzuari egingo zaio eskaria, horretarako inprimakiak betez.

Organika berri bat sortzeko aurrekontu-aplikazio berriak eskatzen badira, eskaerarekin batera programa funtzionalaren arduradunaren baimena aurkeztu beharko da, salbu eta eskaera arduradun horrek egiten badu.

5. artikulua. Gune organiko bat ixtea.

1. Burutu beharreko jarduera amaitutakoan, jarduera horretaz arduratu den gune organikoa ixteko eskabidea aurkeztu beharko zaio Kontabilitate Zerbitzuari. Soberako krediturik geratuko balitz, nora joango den adierazi beharko da eskabidean, erretiratu ahal izateko.
2. Aldi baterako gune organikoen kasuan, organo hauek aurkeztu beharko dute gunea ixteko eskabidea:
 - a) Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzak eta Ikerketaren arloko errektoreordetzak egingo dute eskabidea itxi beharreko unitateak izan direnean ikerketa proiektuetarako edo kontratuak, hitzarmenak, zientzia, teknika edo artearen arloko lanak eta prestakuntza ikastaroak egiteko.
 - b) Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak egingo du eskabidea graduondoko ikastaroak, master ofizialak, doktoregoak, berezko tituluak eta gainerako ikastaroak egiteko guneak itxi behar direnean.
 - c) Aurreko ataletan zehaztutakoa gorabehera, guneari zegokion jarduera amaitu dela iritziz gero, Kontabilitate Zerbitzuak gune hori ixtea proposatu ahal izango du.
3. Gune organiko iraunkorren kasuan gunearen lehen arduradunak egin beharko du gunea ixteko eskabidea, eta horrekin batera organo eskudunak hartutako erabakiaren kopia aurkeztuko du.
4. Gune organiko bat badago ikerketa proiektu, kontratu, diru laguntza, ikastaro, berezko titulu, biltzar, bilera zientifiko edo antzeko baterako, oraindik **aktiboan badago** eta baliabiderik badauka, baina gunearen arduraduna den irakasle eta ikertzaileak UPV/EHUkoa izateari uzten badio, arduradun berria izendatu beharko da.

Gune organiko bat badago ikerketa proiektu, kontratu, diru laguntza, ikastaro, berezko titulu, biltzar, bilera zientifiko edo antzeko baterako sortua, **bere jarduna amaitu bada** eta baliabiderik geratzen bazaio, itxi egingo da gunea eta haren aurrekontuaren kitapena egingo da.

6. artikulua. Kontabilitateko saldoen egiaztapena eta trataera.

Gune organiko bat ixteko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Ez egotea gastu guneak egindako aurrerakinik kitatu edo justifikatu gabe.
2. Ez egotea eskudirurik kutzako saldoan.
3. Organika horren kreditua kobratzeke badago, erabilgarri gisa egotea.

III. KAPITULUA. Banku kontuak

7. artikulua. Banku kontuen ezaugarriak.

1. UPV/EHUko kontu ofizial guztiek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Kontu horiek guztiak Kontabilitate Zerbitzuaren bidez ireki, aldatu eta itxiko dira.
 - b) Kontabilitate Zerbitzuak izango duen banku kontuen erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.
 - c) Bi arduradun izango dituzte, eta bien sinadurak beharko dira.
2. UPV/EHUK finantza zerbitzuak kontratatzen ditu aldiro hainbat finantza erakunderekin, besteak beste gastu guneen banku kontuak kudeatzeko. Hori dela eta, banku kontuak finantza zerbitzu horiek esleitu zaizkien finantza erakundeetan baino ezin izango dira ireki.
3. Salbuespenezko kasuetan baimena emango da kontuak beste finantza erakunde batzuetan irekitzeko. Kontabilitate Zerbitzuari eskatu beharko zaio baimena, horretarako arrazoi objektiboak azalduz. Kontabilitate Zerbitzuak kontu hori mantentzeko izapideak eta betekizunak ezarriko ditu.

II. TITULUA. GESTIO EKONOMIKOA

IV. KAPITULUA. GASTUA BAIMENTZEA ETA ORDAINKETAK ETA BANKU ERAGIKETAK AGINTZEA.

8. artikulua. Gestio ekonomikoa.

1. Gastuaren izaeraren arabera bete beharreko kontratazio arau espezifikoak betetzeaz gain, kudeaketa ekonomikoa egitean berezi beharko dira gastuen onarpena, gastu horien ordainketa eta banku eragiketak.
2. Gastuaren onarpena esaten zaio gune organikoaren jardura ekonomikoaren ondorioz sortutako faktura edo antzeko agiri bat onartzeari.
3. Ordainketa ondasuna jaso ondoren edo kontratatutako zerbitzua eman ondoren egingo da, eta haren adostasuna egiaztatu ondoren. Non eta kontratuan edo lizitazioan bertan ez den bestelakorik ezartzen, administrazioarekiko harremanak Sektore Publikoko

Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera izango dira. Arau horrek administrazioak ordainketak egiteko dituen epeak ezartzen ditu; zehazki, 198. artikulua adierazten duenez, enpresak, behin amaituta, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa egiaztatzeko obra ziurtagiriak edo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio administrazioari, eta horrek 30 eguneko epea izango du horiek onartzeko eta ordaintzeko. Era berean, 30 eguneko epea dago onartzeko, hornitzaileak faktura elektronikoa erregistratzen duenetik.

4. Ordainketa aurrez egin ahal izango da, eragiketaren baldintza ekonomikoetan hala hitzartu baldin bazen. Hala eginez gero, hornitzaileak nahitaez aurkeztu beharko du aurrez ordaindutako zenbatekoari dagokion banku abala.

Salbuespenak: harpidetzak, lizentziak eskuratzea, etab., hau da, zerbitzua eman edo hornidura entregatu aurretik aldeztu behar diren erosketak. Ondoren, dagokion faktura eskatuko da.

5. Face Estatuko Administrazio Orokorren Fakturen Sarrera-Puntu Orokorra da. Lan egiten dugun hornitzaileek egindako hornidurengatik edo emandako zerbitzuengatik, 300 eurotik gorako fakturak (BEZa barne) formatu elektronikoan bidali beharko dituzte eta, horretarako, sisteman alta emanda egon beharko dute aldeztu aurretik.
6. Gastu-aurrerakinak unitate organiko bakoitzak eskura duen kutxa finkoaren bidez gauzatuko dira; kutxa finkorik ez badago eta, betiere, oso noizbehinkakoa bada eta 300€ gorako zenbatekoduna, Kontabilitate Zerbitzuari eskatu ahal izango zaio aurrerakina. Nolanahi ere, ezinbesteko baldintza izango da dagokion dokumentazioarekin justifikatu gabeko aurrerakinik ez izatea.
7. Unibertsitateko organiken arteko konpentsazio ekonomikoak egiteko barne-karguak erabili behar dira; funtsean, Argitalpen Zerbitzuaren eta Unamuno Egoitzaren fakturazioa ekonomikoki kudeatzeko erabiliko dugun metodoa izango da. Era berean, adierazi behar da unibertsitateak igorritako faktura bat ezingo dela inoiz gastu gisa kontabilizatu unibertsitateko organika batean; kudeaketa hori barne-kargu baten bidez egin behar da beti.

9. artikulua. Hirugarrenei alta ematea eta haiek mantentzea

1. Aurrekontuen ondorioetarako unibertsitatearen hirugarrentzat hartuko dira UPV/EHUrekin lan egiten eta gestio ekonomikoko programaren datu basean egon behar duten bezero edo zordunak eta hornitzaile edo hartzekodunak.
2. Hirugarren bati alta emateko eta haren datuak aldatzeko, ziurtagiri bat erantsi beharko zaio eskabideari, alta eman ondoren hirugarrena identifikatzeko erabiliko dugun kodea justifikatuko duena, esate baterako, NANA, pasaporte, zerga egoitzaren ziurtagiria...
3. Hirugarren baten altari ordainketak egiteko banku kontu bat lotzea beharrezkoa izanez gero, finantza entitateak igorritako ziurtagiri bat erantsi beharko zaio eskabideari, non hirugarrenak entitate horretan banku kontu bat daukala adieraziko den.
4. Alta emateko beharrezkoa den dokumentazio guztia Kontabilitate Zerbitzuari bidaliko zaio, enpresak berak digitalki sinatutako PDF fitxategi batean. Sinadura pertsonala bada eta, horren ondorioz, enpresari ez badagokio, sinatzailearen ahalduntzea atxiki beharko da. Pertsona fisikoak betebehar horretatik salbuetsita egongo dira, baldin eta hirugarrenen fitxa aurkezten badute behar bezala beteta eta finantza erakundeak

sinatuta.

5. Hirugarren bakoitza banku kontu bakarrari lotuta egongo da. Hirugarren berari kontu bat baino gehiago lotu behar bazaio, horren kudeaketa hirugarrenaren eskuordetzearen modalitatearen bidez egingo da.
6. Hirugarrenaren kodea eta banku kontua aldatzeko, dagokion dokumentazioa erantsi beharko da, aldez aurretik Kontabilitate Zerbitzuari eskaera eginda.

10. artikulua. Gastuak baimentzea gune organikoetan.

2. artikuluan adierazten den bezala, kontabilitate-agiriekin titulu horretan bertan adierazitako organikoaren motaren arabera dagozkien bi sinadurak jaso beharko dituzte.

11. artikulua. Gastuen kudeaketa gune organikoetan.

Aurreko artikuluan adierazten den bezala, gastu bat onartu egingo da gastuaren sustatzaileak fakturaren adostasuna sinatu duenean eta organikoaren arduradunek kontabilitate-agiria sinatu dutenean.

Kudeaketa-lanak administrazioko eta zerbitzuetako langileek egingo dituzte.

Gastuaren frogagiriak kontratuari buruzko erreferentzia jaso beharko du (txikia, Prozedura Irekia, Prozedura Ireki Sinplifikatua, Prozedura Negoziatua, oinarritutako kontratua...)

III. TITULUA. DIRUZAINZAREN GESTIOA UPV/EHU_n

V. KAPITULUA. DIRUZAINZAREN FUNTZIONAMENDUA

12. artikulua. Diruzaintzaren funtzionamendua.

Unibertsitatean Kontabilitate Zerbitzuak kudeatuko du diruzaintza osoa, Gerentziak emango dizkion aginduei jarraiki.

Normalean, ordaintzeko egunak aste bakoitzeko astelehen eta ostegunak izango dira. Egunduetan egingo da ordaintzeko agindua eman arte sortutako dokumentu guztien ordainketa. Dena den, une jakin batean premia berezia badago, segituan egin ahalko da ordainketa, eta kontrakoa: gerta liteke ez ordaintzea, likidezirik ez badago.

ORDAINKETEN ARAUBIDEA

ORDAINKETEN ARAUBIDEA

I. TITULUA. ORDAINKETEN GESTIOA UPV/EHUn

I. KAPITULUA. ORDAINKETAK EGITEKO ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Ordainketen gestioa.

1. Kasu guztietan eta nahitaez, ordainketen kudeaketa egingo da gastua aurretik kontabilizatuz eta sinatuz, eta gero kontura kargatuz, Kontabilitate Zerbitzuak agindua eman ondoren.
2. Salbuespen bakarrak izango dira helbideratzeak (5. artikuluan arautzen direnak) eta dibisen erosketa. Kasu bietan aurrena kargua egingo da, eta ondoren kontabilizatuko da.
3. Kontratututako ondasuna jaso edo zerbitzua eman ondoren egin behar dira ordainketak, inoiz ez alde aurretik, II. tituluko 8.4 artikuluan jasotako salbuespenetan izan ezik.

2. artikulua. Ordaintzeko bideak.

1. UPV/EHUren kudeaketa sistemako ordainketa moduak erabiltzeko zorrotz bete beharko dira hurrengo artikuluetan zehaztuko diren arauak. Edozein modalitate erabili ahal izango da, hurren adieraziko diren mugen barruan.

II. KAPITULUA. UPV/EHUn ERABIL DAITEZKEEN ORDAINKETA MODUAK

3. artikulua. Ordainketa mekanizatuak.

1. Hau izango da ohiko modua gune organikoek egin beharreko ordainketa guztietan.
2. Diruzaintzaren funtzionamendua azalduta dago Gestio Ekonomikoaren Araubide Orokorreko III. Tituluko V. kapituluan.

4. artikulua. Banku helbideratzearen bidezko ordainketak.

1. Modu hau bakarrik erabiliko da elektrizitatea, telefonoa, ura, gasa eta zabor bilketari dagozkion udal tasak ordaintzeko.
2. Guztiz debekatuta dago bestelako gastuak helbideratzea.
3. Horiez gain, bestelako gastu atipikoak helbideratu ahal izango dira, Kontabilitate Zerbitzuak horretarako baimena ematen badu. Horretarako, eskabidea egingo da idatziz, eta azalduko dira ordainketa helbideratzeko arrazoiak. Era berean, aurrekontu saila zehaztuko da, eta gastua urtean gutxi gorabehera zenbatekoa izango den. Kontabilitate Zerbitzuak gestionatuko du espediente osoa.

5. artikulua. Banku taloien bidezko ordainketak.

1. Nahiz eta normalean ordainketa mekanizatuak egin (hau da, bankuko transferentziaren bidez), kutxa finkoa daukaten gune organikoek bankuko taloiak ere erabili ahal izango dituzte.
2. Banku taloiak hartzekodunaren izenean bakarrik egin ahal izango dira. Hortaz, guztiz debekatuta dago "eramaileari ordaintzeko" ordainketa dokumentuak egitea.

6. artikulua. Eskuko banku transferentzien bidezko ordainketak.

1. Ordainketa mekanizatua egitea ezinezkoa denean baino ez da erabiliko. Kasu horretan eragiketaren gastuak erdibana ordainduko dituzte unibertsitateak eta jasotzaileak.

7. artikulua. Ordainketak esku dirutan

1. Kutxa finkoa daukaten gune organikoek ezusteko gastu txikiak eskudirutan ordaindu ahal izango dituzte.
2. Ekitaldia ixtean, saldoa justifikatzeko, funtsak egotearen ziurtagiri bat sinatu beharko dute kutxaren arduradun guztiek.

III. KAPITULUA. UPV/EHUren KOLABORATZAILEEI EGIN BEHARREKO ORDAINKETAK, EPAIMAHAIETAN, BEREZKO TITULUETAN, MASTERRETAN ETA BESTELAKO JARDUERETAN ARITZEAGATIK

8. artikulua. Lankidetzak.

Kolaborazioaren ordainketan sartu ahal izango dira lanaren ordainsaria, eta joan-etorrien, dieten eta abarren gastuak.

Epaimahai eta batzordeetan parte hartzeagatik eta bestelako kolaborazioengatik ordaindu beharrekoak: irakasle iraunkorrek titular edo katedradunen lanpostuak betetzeko lehiaketak, doktorego tesiak, unibertsitatean sartzeko hautaprobak edo ordainsaria jasotzeko eskubidea ematen duten bestelako epaimahai edo batzordeak, bai eta berezko tituluetan, ikastaroetan eta bestelako jardueretan egindako kolaborazioak ere.

- UPV/EHUko langileak: Nominaren bidez ordainduko dira, eta Gizarte Segurantzaren kuota kenduko zaie zenbatekoei, hala dagokionean.
- UPV/EHUz kanpoko langileak: dagokion zenbatekoari PFEZen atxikipena egingo zaio.

Garraio, ostatu, dieta eta halakoengatik, benetan egindako eta frogatutako gastuak ordainduko dira.

9. artikulua. Kolaboratzaileei gastuak ordaintzeko aurrerapenak.

1. Kolaboratzaileei II. kapituluaren azalduetako edozein bide erabiliz ordaindu ahal izango zaie, bertan zehaztutako mugen barruan.
2. Edozein bide erabilita ere, bidaia gastuen % 50eraino aurreratu ahal izango zaie. Zenbateko hori kalkulatzeko garraio publikoan egindako joan-etorrien, mantenu dieten eta ostatu gastuen batura egingo da.
3. Aurrerapenak kutxa finkoko taloiaz bakarrik egin ahal izango dira.

10. artikulua. Kolaboratzaileei emandako aurrerapenaren likidazioa

1. Kolaborazioa amaitutakoan, kitatu egingo da aurrerapena, eta horretarako gastuen agiriak aurkeztu beharko dira. Frogatutako gastua jasotako aurrerapena baino handiagoa balitz, falta den zenbatekoa egoki irizten zaion modua erabiliz ordainduko da. Aurrerapena gastua baino handiagoa izan bada, kolaboratzaileak itzuli egin beharko du jasotako gehiegizko zenbatekoa. Dirua sartu beharko du aurrerapena ordaindu dion gastu gunearen kontuan eta eragiketa hau aurrerapenaren likidazio gisa sailkatuko da.

2. Egindako ordainketaren egiaztagiri gisa gastua egiteko baimenaren kopia bat eman ahal izango zaie ordainketaren hartzaileei. Bertan zenbatekoa, kontzeptua eta helbideraketaren datuak agertuko dira.

II. TITULUA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK LAGATZEA

IV. KAPITULUA. FAKTURA ETA OBRA EGIAZTAGIRIAK ENDOSATZEA

11. artikulua. Endosuaren izaera.

1. Endosua da egintza administratibo bat, zeinaren bidez UPV/EHUK konpromisoa hartzen duen hirugarren batek (lagatzaileak) egindako faktura edo obra ziurtagiri bat beste hirugarren bati (endosu hartzaileari) ordaintzeko, lagatzailearen eskariz.
2. Faktura edo obraren ziurtagiriaren endosua egiteko, beharrezkoa da alde zuzenetik jasota egotea horretarako eskumena duen pertsonak onartzen duela endosua.
3. Endosua berea erregistratuz formalizatuko da. Horretarako, endosuaren erregistroaren kopia eta fakturaren edo obraren ziurtagiriaren kopia emango zaizkio lagatzaileari, honela legez jasota gera dadin endosua onartzen duela.
4. Ezin izango da endosurik erregistratu, baldin eta faktura edo obraren ziurtagiria baldintza legalen baten pean balego zenbatekoari edo ordainketaren iturriari dagokionez, edo, oro har, ordainketa galaraz lezakeen xehetasun formalen bat balego.

12. artikulua. Endosuaren ondorioak.

1. Endosu bat erregistratuz gero, UPV/EHUK konpromiso legala hartzen du dagokion zenbatekoa ordaintzeko fakturaren edo obraren ziurtagiriaren titularrak esandako endosu hartzaileari.
2. Endosatutako faktura edo obraren ziurtagiria legez dagokion epean ordaindu beharko da.

13. artikulua. Endosuaren indarraldia.

1. Endosua egindakoan suertatuko balitz prestazioa, hornidura edo obraren ziurtagiria eman duenari legezko zigorren bat ezarri behar zaiola zerbaitegatik, endosua indarrean egoteari utziko lioke, eta hortaz, ez litzaioke faktura edo obraren ziurtagiria ordainduko endosuaren hartzaileari, eta horren berri emango litzaioke lagatzaileari.
2. Gorabehera horiek Kontabilitate Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkio bere garaietan faktura edo obraren ziurtagiria onartu zuen pertsonak, zerbitzu horrek horren berri eman diezaion endosuaren hartzaileari.

14. artikulua. Endosu eskariaren tramitazioa.

1. Endosuaren erregistroa faktura edo obraren ziurtagiria onartu duen pertsonak hasiko du. Horretarako, faktura edo obraren ziurtagiarekin batera, aurkeztu beharko du notarioaren ahalordea, zeinaren bidez endosua eskatzen duen pertsonari ahalmena ematen zaion lagatzailearen izenean aritzeko. Pertsona fisikoen kasuan, nahikoa izango da nortasun agiria edo pasaportearen aurkeztea.
2. Endosuaren erregistroa Kontabilitate Zerbitzuan egingo da, I. eranskineko ereduaren erabiliz, eta endosuen erregistro nagusian gordeko da.

V. KAPITULUA. LAGATZAILEAREN BIDEZ ORDAINTZEA

Lagatzailearen figura erabiltzen da unibertsitateko langile batek (TEKAZEL edo IIP, inoiz ez ikasleak) faktura bat ordaintzen dionean hornitzaile bati unibertsitatearen izenean, eta gero gastu hori kontabilizatzen denean hornitzailearen izenean, zeina hirugarren parte gisa agertzen baita.

Halakoetan "gastu dokumentuekin" batera, ordainketaren agiria aurkeztu beharko da.

I. ERANSKINA

ENDOSUAREN ERREGISTROA

ENDOSUAREN ZENBAKIA: _____

ENDOSUAREN ERREGISTROAREN DATA: _____

ENDOSU EMAILEA. IFZ: _____

-Izena: _____

ENDOSU HARTZAILEA. IFZ: _____

-Izena: _____

FAKTURA ENDOSATUA - Faktura zk.: _____

- Zenbateko gordina: _____

- Zenbateko likidoa: _____

KONTABILITATE DATUAK - Kontabilitate erreferentzia: _____ (1)

-Kontratu zenbakia: _____ (1)

_____ (e)n, _____ eko _____ aren ____ (e)an (3)

Endosu emailearen izenean (2)	Endosu hartzailearen izenean (2)	Kontratazioaren arduraduna (2)	Kontabilitateko arduraduna (2)
-------------------------------	----------------------------------	--------------------------------	--------------------------------

(1): Kontratazioaren arduradunak kontabilitate datuak adierazi beharko ditu, halako daturik balego.

(2): Lauki bakoitzean sinadura eta zigilua jarri beharko dira.

(3) Endosua erregistratzeko eskabidearen data.

DIRU SARREREN ARAUBIDEA

DIRU SARREREN ARAUBIDEA

SARRERA

Arautegi honen bidez diru sarrerak sailkatu, eta sarrerak kudeatzeko arauak eta prozedurak finkatzen dira. Haren helburua da UPV/EHUren baliabide guztien kudeaketa eta kontabilizazio eraginkorra lortzea, baliabideok EAEk emandako diru laguntza izan, baliabide propioak izan edo ekitaldian zehar sortzen diren bestelako sarrerak izan.

Araubide honek eta etorkizunean egiten zaizkion aldaketek helburu izan behar dute diru sarrera mota guzti-guztiak koherentziaz arautzea eta sarreraren lorpenean zerikusia duten gune ORGANIKOEN gero eta hobeto kudeatzea sarrerok.

Diru sarreraren tratamendua lotuta dago, batetik, sarreraren izaerarekin, eta, bestetik, baliabideak erabiltzen dituzten gune funtzionaletan ezarritako gestio egiturarekin.

I. KAPITULUA. ZERBITZU ZENTRALEN DIRU SARRERA OROKORRAK

1. artikulua. Unibertsitaterako urteko hornidura.

UPV/EHUren baliabide orokorren barruan sartzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura jasotako urteko hornidura. Hiru ekarpen motatan egituratzen da:

- Ekarpene arrunta, gastu arruntetarako eta kapital eragiketarako transferentziak biltzen dituena.
- Ekarpene osagarria, programa kontratuen finantzaketarako.
- Kreditu zehatzak, inbertsio eta azpiegituren urte anitzeko inbertsio programa hornitzeko.

2. artikulua. Beste erakunde publiko batzuen diru laguntzak.

UPV/EHUko baliabide orokorren parte dira, baina batzuetan xede jakin baterako diru sarrerak dira.

3. artikulua. Tasa akademikoetatik etorritako diru sarrerak.

UPV/EHUko baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

4. artikulua. Tasa administratiboetatik etorritako diru sarrerak.

- Kopia kautoak, kautotuak, erkatuak edo ziurtagiriak emateagatik kobratzen diren tasak. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ezartzen ditu, ikasturte bakoitzean UPV/EHUko goi mailako hezkuntza zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak zehazten dituen aginduan.

UPV/EHUko baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

- Kopia soilak emateagatik kobratzen diren tasak. Kopia soilak egiteagatik prezio bat ezarri da, III. eranskinean adierazitakoa.

UPV/EHUko baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

5. artikulua. Banku kontuetako interesek sortutako diru sarrerak.

UPV/EHUko baliabide orokorren zati dira eta ez daude inongo kreditu jakinen finantzazioari lotuta.

II. KAPITULUA. GESTIO GUNEEN BESTELAKO DIRU SARRERA OROKORRAK

6. artikulua. Itxitako aurreko ekitaldietan egindako ordainketak itzultzearen ondorioz sortutako diru sarrerak.

1. UPV/EHUko baliabide orokorren zati dira eta, hortaz, ezin zaizkio gehitu haiek sortu zituen gestio gunearen aurrekontuari.
2. Bere garaian gastu horretarako zegoen aurrekontu partidak xede jakin baterako krediturik izango balu, Kontabilitate Zerbitzuari eskatuko zaio kreditua esleia sortutako diru sarreraren kontura. Kasu horretan, behar bezala arrazoitu beharko da esleipena ezinbestekoa dela bere garaian ezarritako helburua betetzeko.
3. Honelako sarrerak kudeatzeko prozedura hau izango da:
 - A. Zenbatekoa kontuan sartu dela jakin bezain laster, Kontabilitate Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio.
 - B. Itzulitako ordainketa kreditu orokorrekin egin bazen, sarreraren kontabilizazioa baino ez da egin beharko, eta Kontabilitate Zerbitzuak berak egingo du.
 - C. Diru sarrera jaso duen gune ORGANIKOAK eskatuko balu diru sarrera horren kontura kreditua esleitzea, egiaztatu egin beharko du bere garaian ordainketa egin zuela xede jakin baterako kreditu baten kontura. Orduan Kontabilitate Zerbitzuak diru sarrera kontabilizatuko du eta kreditu esleipena egingo dio gune ORGANIKOARI.

7. artikulua. Argitalpen Zerbitzuak sortutako diru sarrerak.

Diru sarrerok egingo dira Argitalpen Zerbitzuak horretarako daukan kontuan.

Sarrera hauek sortzen dira zerbitzuaren argitalpenen katalogoko liburuen salmentatik eta kopia zerbitzuetatik (fotokopiak, enkoaderazioak eta abar). Kontabilitate kasu hauek gerta daitezke:

- Argitalpen Zerbitzuak argitalpenen katalogoko liburuak saltzea edo kopia zerbitzuak egitea unibertsitateko beste gune organiko batzuei: Argitalpen Zerbitzuak "barne kargurako" faktura bat egingo du, eta hori jasotzaileak ordainduko du "barne kargurako" gastu egiaztagiri baten bidez. Honekin ordaindutzat joko da faktura eta amaitutzat joko da eragiketa.
- Argitalpen Zerbitzuak bere argitalpenen katalogoko liburuak saltzea eta kopia zerbitzuak egitea unibertsitatekanpoko guneei, eskatzailearen eskariz banan bana fakturaz direnak: Argitalpen Zerbitzuak faktura egingo du, eta horiek unibertsitatearen diru sarreratzat joko dira. Faktura hauek behin kobratuta, dagokion kobrantza orriari lotu beharko zaizkio.
- Argitalpen Zerbitzuak kopia zerbitzuak egitea zerbitzuan bertan, eskudirutan kobratuak eta datafono bidez (sarrera hauek diferenteak dira unibertsitateko guneetatik

datozenetatik). Zerbitzua kobratzen duen unean Argitalpen Zerbitzuak faktura sortuko du, eta diru hori dagokion kontuan sartuko du egoki deritzon maiztasunaz.

Tarifak V. eranskinean daude.

8. artikulua. Ikastetxe Nagusiak sortutako diru sarrerak.

Diruzaintzan islatu behar diren ikastetxe nagusiaren sarrera guztiak horretarako daukan kontuan egin beharko dira.

Egoitzan ostatu hartzen duten ikasleen kuotek sortutako diru sarrerak dira. Sarrera eta kudeaketa mota hauek egon daitezke:

- Unibertsitateko beste organiko batzuek ordaindutako egonaldiak: ikastetxe nagusiak "barne kargu" bat egingo du, eta hartzaileak ordainduko du "barne kargurako" gastu egiaztagiri baten bitartez. Honekin ordainduzat joko da faktura eta amaitutzat joko da eragiketa.
- Unibertsitateko gune organikoekin zerikusirik ez duten pertsona edo erakundeen egonaldiak eta janaria: ikastetxe nagusiak faktura egingo du, eta horiek unibertsitatearen sarreratzat joko dira. Fakturak behin kobratuta, dagokien kobrantza orriari lotu beharko zaizkio.

Irakasle gonbidatuen eta aldi baterako egoiliarren tarifak I. eranskinean daude.

III. KAPITULUA. UPV/EHUren JABETZAKO HIGIEZINEN ERABILERAK SORTUTAKO DIRU SARRERAK

1. ATALA.- UPV/EHUren JABETZA PRIBATUKO HIGIEZINEN ERABILERAK SORTUTAKO DIRU SARRERAK

9. artikulua. Kontzeptua.

Diru sarrera hauek unibertsitateko zerbitzu publikoari atxikita ez dauden UPV/EHUren higiezinaren alokairutik jasotzen dira.

Unibertsitatearen jabetza pribatuko higiezintzat hartzen dira honako hauek: unibertsitateen arloko sail eskudunak alde aurretik baimena emanda, Gizarte Kontseiluak unibertsitate zerbitzu publikotik jaregin dituen jabetzak, hutsik daudelako eta epe ertain edo luzera ez delako aurreikusten horiek erabiltzea UPV/EHUren bulegoak, ikastegiak, gelak edo bestelako zerbitzuak kokatzeko.

10. artikulua. Prozedura.

Inolako ikastegi edo sailari atxikita ez dauden higiezin mota hauek alokatzeko eskumena Gerentziarena da. UPV/EHUren Estatutuek ondare arloan emandako eskumenaren bertutez. Gerentziak errentaria hautatuko du Euskadiko Ondareari buruzko Legean horretarako jasota dagoen prozeduraren arabera

11. artikulua. Prezioa

Alokairua merkatuko prezioan egingo da, unean uneko egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

Errenta kobratzeko, Kontabilitate Zerbitzuak dagokion faktura igorriko du. Fakturan BEZa sartuko da.

12. artikulua. Fidantza.

Errentariak, fidantza kontzeptuan eta alokairua hasi baino lehen, hilabete bati dagokion kopurua sartu beharko du UPV/EHUren kontu orokorrean, higiezin etxebizitza gisa erabiliko bada: beste erabilera bat ematen bazaio, bi hilabeteri dagokion kopurua jarri beharko du.

Fidantza sartu ondoren, horren berri eman beharko zaio Kontabilitate Zerbitzuari, eragiketa kontabiliza dezan. Diru sarreraren berri ematearekin batera, beharrezkoa den informazioa emango da, alokairuari dagokion faktura igortzeko, eta Kontabilitate Zerbitzuak faktura bidaliko dio errentariari.

Alokairu kontratua amaitzean, higiezin errentariak konpondu beharreko kalteak ez daudela eta hileko faktura guztiak ordaindu direla baieztatu ondore, Gerentziak horren berri emango die Zerbitzu Zentralei, fidantza itzul dezaten.

Higiezin kalteak baldin badaude edo errenta ordaindu gabe baldin badago, horren berri emango zaio Kontabilitate Zerbitzuari, eskubide aitortpena egin dezan fidantzari dagokionez, eta, hartara, konponketak edo errenta ordaintzeko behar den fidantzaren zatia aurrekontuko sarrera bihur dezan. Fidantzaren gainerako zenbatekoa, ezer geratuko balitz, errentariari itzuliko zaio. Fidantza nahikoa ez bada kalteak ordaintzeko, unibertsitateak neurriak hartuko ditu falta den parte kobratzeko.

13. artikulua. Alokairu hornidura duten aurrekontu kredituen erabilera.

1. Alokairuen diru sarrerekin esleitutako kredituak kreditu orokorrak dira, eta, hala, eskubidea aitortu den aurrekontu ekitaldian baino ezin izango dira erabili.
2. Urtean urtekoari badagokio ere, alokairuetako diru sarreraren kreditu osoa ekitaldia ixtean erabili ez bada, hurrengo ekitaldira pasatu ahal izango da, baldintza hauek betetzen badira:
 - a) Alokairua eta dagokion eskubidearen aitortpena abenduan egin direnez, ezinezkoa izan da guztia erabiltzea ekitaldia itxi baino lehen. Hala gertatuz gero, gerakin hori hurrengo ekitaldira pasatzeko eskatu ahal izango zaio Kontabilitate eta Aurrekontu Zerbitzuari.
 - b) Alokairuak sortutako kreditua hornidura edo obra txiki baterako erabiltzeko konpromisoa dago. Hala gertatuz gero, gerakin hori hurrengo ekitaldira pasatzeko eskatu ahal izango zaio Kontabilitate Zerbitzuari. Eskariarekin batera, hornidura edo obra txikia egiteko kontratua dagoela egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira.

14. artikulua. Kontratuari aplika dakioken araudia.

Alokairu kontratuak Hiri Errentamenduen Legean edo, hala behar bada, Landa Errentamenduen legean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

2. ATALA. UPV/EHUren JABARI PUBLIKOAREN ONDASUNEN ERABILERA PRIBATIBOAK EDO USTIAPEN BEREZIAK SORTUTAKO TASAK

15. artikulua. Zerga egitatea.

Zerga egitatea da UPV/EHUren ondasun publikoak erabili edo modu berezian ustiatzea, unibertsitateko organo eskudunek Euskadiko Ondareari buruzko Legeak ezarritakoaren arabera emandako lagapen edo baimenen bitartez.

Unibertsitatearen ondasun publikoaren higiezin gisa hartzen dira unibertsitate zerbitzu publikorako erabilitako higiezinak, non ikastegiak, bulegoak, gelak edo bestelako zerbitzuak kokatzen diren.

16. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasa horren subjektu pasiboak dira emakida eta baimen administratiboen titularrak, edo, hala dagokienean, haien eskubideak subrogatzen dituztenak.

17. artikulua. Sortzapena.

Tasa ordaindu behar da emakida edo baimena ematen den unean. Emakida edo baimena urtez urte luzatzen bada, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean ordaindu beharko da tasa.

18. artikulua. Elementu kuantitatiboak .

Tasak ezaugarri hauek izango ditu:

1. Ondasun publikoen erabilera pribatiboagatik urtean ordaindu beharreko tasa izango da ondasun horien balio eguneratuaren % 5. Balioa kalkulatu da UPV/EHUko Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorren arabera, kontuan hartuta erabiliko den azaleraren neurria eta non dagoen kokatuta eraikinean.
2. Ondasun publikoaren ustiapen bereziko urteko tasa izango da zerga oinarriaren % 5, ustiapenak sortzen duen onura erreferentzia hartuta.
3. Emakidaren edo baimenaren lehen urtean tasa izango da urte horretan emakida edo baimena indarrean egon den denboraren arabera, hau da, hainbaneketa egingo zaio aurreko paragrafoen arabera dagokion zenbatekoari. Era berean, hainbanaketaren irizpide bera aplikatuko da emakidaren edo baimenaren azken urtean.
4. Emakidarekin edo baimenarekin batera onuradunari betebehar edo ordezeko zerbitzu batzuk ezartzen zaizkionean, harentzako onura ekonomikoa gutxitzen dutenak, tasaren oinarria proportzio berean gutxitu beharko da, hurrengo artikuluan ezartzen denari trazarik egin gabe.

UPV/EHUko inbentarioan eraikinek balorazio desberdinak dituztenez (transferituak izan diren ala unibertsitateak berak eraiki dituen) aintzat haratuta eta artikulua honetan ezarritakoa aplikatzeari begia. Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen eta Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatearen ondasun espezifikoaren tasak et tasa orokorrak onartzen dira, zeinak erabilera eta ustiapen hauei aplika dakizkieken. Tasa horiek II eranskinaren B) eta C) ataletan zehazten dira, hurrenez hurren.

Era berean, "Bestelako diru sarrerak" gisa agertuko dira unibertsitate spin-off mintegietarako espazioen erabilerari lotuta sinatutako hitzarmenen bidez kobratutako kopuruak.

Dena dela, aipatutako eranskinetan aurreikusita ez dauden beste ondasun batzuen baimenak edo kontzesioak ematen badira edo horrelakoen berezitasunagatik zenbatekoak ere berezia

izan behar badu, Gerentziak zehaztu beharko du tasa kasu bakoitzean, artikulua honetan ezarritako arauak aplikatuta.

19. artikulua. Salbuespenak.

Honako kasu hauetan ez da kobratuko tasarik ondasun publikoen erabilera pribatiboagatik edo ustiapen bereziagatik:

- a) Doako emakida edo baimenak direnean.
- b) Erabilera pribatiboak edo ustiapen bereziak onura ekonomikorik ez dakarrenean onuradunarentzat, edo, onura ekonomikoa egon arren, baldintza edo ordezeko zerbitzu batzuk bete behar dituenean, onura hori berdintzen dutenak edo hutsaren pareko egiten dutenak.

Hori baldintzen orrietan zehaztuko da edo erabilera pribatiborako edo ustiapen berezirako baimena emateko dokumentuetan.

20. artikulua. Tasa kitatzea.

Honela kitatuko da tasa:

1. Emakidak edo baimenak urtebeterako edo gehiagorako ematen direnean tasa hiru hilean behin kitatuko da: urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian. Gainerako kasuetan tasa ordainduko da emakida edo baimena ematen den unean.
2. Tasaren subjektu pasiboak tasa ordainduko du, eta hala dagokionean legeak agintzen duen bermea jarri, Kontabilitate Zerbitzuak horretarako dauzkan kontuetan.

21. artikulua. Prozedura.

Higiezin mota hauek alokatzeko eskumena Gerentziarena da, UPV/EHUren Estatutuek ondare arloan emandako eskumenaren bertutez. Gerentziak hautatuko du errentaria, Euskadiko Ondareari buruzko Legean horretarako jasota dagoen prozeduraren arabera.

Horretarako, dagokion Erabakia emango du, Unibertsiteateko Ondare Zerbitzuaren bidez. Gero, lokalak alokatu dituen ikastegiak erabakia bidaliko dio errentariari, gastuen likidazio orriarekin batera, dokumentazio hori nahikoa baita gastua likidatu ditzan. Aldi berean, Erabakiaren eta gastuen likidazio orriaren kopia bana bidaliko zaio Kontabilitate Zerbitzuari, gastuen kontabilitatea egin eta egoki irizten dion aurrekontu aldaketa egin dezan.

Gastuen aurrekontu aldaketak hauek honako hauei esleituko zaizkie:

- a) Alokairuaren beraren zenbatekoaren %25 BEZ gabe (fakturarik balego) gunearen gastuetarako aurrekontuaren igoera bezala esleituko zaio 2. kapitulutik soilik eskatzen den ekonomikoan.
- b) Langile gastuen aurrekontua 15011 ekonomikoari esleituko zaio, kontzeptu horren pean nominaren bidez ordain dadin eskatzeko.

- c) Lokala garbitzeko zerbitzuaren aurrekontua 25300 ekonomikoari esleituko zaio.
- d) Gerora sortutako alokairuaren gastuengatik kostuari egotzitako beste edozein zenbateko dagokion ekonomikoari esleituko zaio, gero dena delako gastua ordaintzeko.

22. artikulua. Aparteko gastuak.

UPV/EHUren higiezin erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik unibertsitateko langileek aparteko lana egin behar badute, okupazioari dagokion tasaz gainera, horrek UPV/EHUri eragingo dion gastua baimena edo kontzesioa emateari buruzko erabakiari gehituko zaio, eta erakunde interesdunak hartu beharko du bere gain.

Era berean, okupazioaren harira unibertsitateak izenpetutako kontratu baten barruan sartutako zerbitzuaren bat (garbitasuna, argiztapena, segurtasuna, etab..) egin behar bada, UPV/EHUk erakunde interesdunak kontratu beharko ditu zuzenean.

Aparteko gastu horiek guztiak aurreko artikuluan adierazitako gastuen likidazio orrien likidatuko dira.

Horrez gain, eguneko 800 €-ko energia-gehiarria kobratuko da UPV/EHU berogailua piztuta dagoen bitartean larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan egiten diren okupazioetarako. Osagarriaren zenbatekoa eguneko 6.500 €-koa izango da berokuntza-sistema orokorraren menpeko Bizkaiko Campuseko Erandioko zentroak eta/edo eraikinak okupatzeko: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Arte Ederren Fakultatea, Areto Nagusia, Liburutegia, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta I eta II ikasgelategiak.

Energia-gehiarri hori aparteko gastu gisa gehitu beharko da okupazio horiek direla-eta prestatzen diren aurrekontuetan eta horiek baimentzen dituzten ebazpenetan. Energia-gehiarri horri dagokion zenbatekoa 3910 organikari esleituko zaio.

IV. KAPITULUA. KOPIA ETA ZIURTAGIRIAK EMATEAGATIK SORTUTAKO DIRU SARRERAK

23. artikulua. Egitate zergagarria.

Tasak ezarri dira agirien kopia soilak edo ziurtagiriak egiteagatik, betiere administrazioak horiek aztertzeko aukera badauka.

24. artikulua. Tasaren kudeaketa ekonomikoa.

---------	---	----------	----------------	------------	----------------

SCAB10001	Karbono organiko totala (TOC/NPOC)	Lagina	8,1	24,3	36,7
SCAB10002	Nitrogeno totala (TN)	Lagina	8,1	24,3	36,7

Kodigoa	Mikrouhinen bidezko digestioa eta erauzketa	Unitatea	UPV/EHU Tarifa	OPI Tarifa	Kanpoko Tarifa
SCAB11001	Inorganikoen digestioa (1-8 lagin)	Zikloa	29,7	80,5	120,4
SCAB11002	Organikoen erauzketa matrize ezberdinetan (1-6 lagin)	Zikloa	50,2	63,2	94,5

Kodigoa	Datuen analisi estadistikoa eta lizentziaren erabilera			Unitatea	UPV/EHU Tarifa	OPI Tarifa	Kanpoko Tarifa
SCAB12001	Lipidomikarako erabilera	softwarea,	analisirekin	Ordua	Barne	8,6	13,0
SCAB12002	Lipidomikarako erabilera	softwarea,	analisi gabe	Ordua	3,8	8,6	13,0
SCAB12003	Lipidomikarako analisia	softwarearen	bidez datu	Ordua	37,8	42,7	64,3
SCAB12004	SIMCA bidez analisi eta datu prozesamendua			Ordua	39,4	39,4	59,4

Kodigoa	Beste motatako analisiak eta prestaketa metodoak			Unitatea	UPV/EHU Tarifa	OPI Tarifa	Kanpoko Tarifa
SCAB13001	pH neurketak			Lagina	7,6	15,1	22,7
SCAB13002	Eroankortasun neurriak			Lagina	7,0	15,1	22,7
SCAB13003	Karbonatoak eta bikarbonatoak			Lagina	13,0	33,5	49,6
SCAB13004	Erauzyak			Ordua	30,2	71,3	106,9
SCAB13005	Laginen filtrazioa			Lagina	4,9	8,1	12,4

4.7. Zerbitzu Komunak

4.7.1. Ikerkuntzari Aplikatutako Informatika

Errekurtso konputazionalen erabilpena fakturatzeko da, core bakoitzeko eta orduko. (cpu sinplea).

Kodigoa	Kalkulo denboraren fakturazioa (Orduko eta core bakoitzeko)	Unitatea	UPV/EHU Tarifa	OPI Tarifa	Kanpoko Tarifa
INFO01001	Kalkulua Arinan CPU	Ordua eta corea	0,001	0,006	0,010
INFO01002	Kalkulua Arinan GPU	GPU parte eta ordua	0,008	0,059	0,089

Bilduta dauden datuen fakturazioa:

1. Urte amaieran kontsumitutako kalkulo denboraren arabera ezarritako tarifa.
2. GB bakoitzeko prezioak aplikatuko dira (Gb).
3. Hilabetero fakturatu da, hilabete bakoitzean erabili den diskoaren mediaren arabera.

Kodigoa	Bildutako datuen fakturazioa (Hilabetero bildutako GB extra bakoitzeko) CPU-aren erabilera tartea (egunak urtean)	Unitatea	UPV/EHU Tarifa	OPI Tarifa	Kanpoko Tarifa
INFO02001	2500 < cpu	Gb	0,11	0,11	0,11
INFO02002	100 < cpu < 2500	Gb	0,54	0,54	0,54
INFO02003	1 < cpu < 100	Gb	1,08	1,08	1,08
INFO02004	0 < cpu < 1	Gb	1,62	1,62	1,62

VII. ERANSKINA

Funtzionala	Funtzionalaren izena	Arduraduna
011	Sailak. Graduako jarduerak	Graduaren Ikasketen eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordetza Campuseko errektoreordetzaK Gerentzia
012	Zentroak	Graduaren Ikasketen eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordetza Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordetza Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza
013	Irakaskuntza-laborategietarako ekipamendua	Gerentzia Campuseko errektoreordetzak
014	Unibertsitaterako sarbidea	Graduaren Ikasketen eta Hezkuntza Berriztatzeke errektoreordetza
015	3. zikloa: Doktoretza-programak eta doktoretziak	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordetza
016	Berezko Txotxongiloak, Masterra eta Graduondokoaren Ikastaroak	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordetza
017	Graduondokoaren programa ofizialak	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordetza
018	Unibertsitateko ikasketa osagarriak kanpoko baliabideak	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordetza
019	Esperientzia gelak	Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreordetza
021	Ikerketa-jarduera	Ikerketaren arloko errektoreordetza Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza
024	Ikerketaren arloko Zerbitzu Orokorrak	Ikerketaren arloko errektoreordetza
025	Ikerketa-jarduera, finantzaketa afektatua duena	Ikerketaren arloko errektoreordetza
026	Ikerketa-jarduera, LOSUren 60. artikulua	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza
027	Unibertsitateko Liburutegia, ikerketarako laguntza gisa	Ikerketaren arloko errektoreordetza
030	Administrazio-kudeaketa eta gastu orokorrak	Gerentzia Zerbitzu Orokorrak
031	TEKAZELaren prestakuntza	Gerentzia
032	Gizarte- eta sindikatu-ekintza	Gerentzia Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordetza
033	Administrazio-ebaluazioa eta irakaskuntzakoa ez dena	Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordetza
034	Laneko segurtasunaren eta osasunaren garapena	Gerentzia
035	Campusetako Ingurumen Kudeaketa	Campuseko Errektoreordetzak
036	Aldezle	Aldezle
039	Covid-19aren kudeaketa	Gerentzia
041	Euskararen normalizazioa eta eleaniztasuna	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza

042	Euskara Zerbitzua	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza
051	Irakasleen prestakuntza	Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordetza
052	Irakaskuntza berrikuntza	Eraldaketa Digitaleko eta Komunikazioko errektoreordetza Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzako Ikasketen errektoreordetza Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordetza
061	Ikasleen informazioa, ordezkariak eta antolaketa	Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordetza
062	Kultur jarduerak	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen Arloko errektoreordetza Campuseko errektoreordetzak
063	Kirol jarduerak	Campuseko errektoreordetzak
064	Egoitzak eta ikastetxe nagusiak	Bizkaiko Campuseko errektoreordetza
065	Unibertsitate-proiektzioa	Eraldaketa Digitaleko eta Komunikazioko errektoreordetza Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza
066	Gizarte-erantzukizuna	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza Idazkaritza Nagusia
067	EHU Gune	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza
068	Katedrak	Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza
069	Berrikuntzaren eta Ekintzaitzaren Sustapena	Bizkaiko Campuseko errektoreordetza
071	Unibertsitate Liburutegia	Ikerketaren arloko errektoreordetza Liburutegiaren Zuzendaritza
081	Higiezin mantentzea	Campuseko errektoreordetzak Gerentzia
082	Erreforma, Zabalkuntza eta Hobekuntza	Campuseko errektoreordetzak Gerentzia
083	Altzariak	Campuseko errektoreordetzak Gerentzia
100	Campusak garatzeko urte anitzeko inbertsioak	Gerentzia
111	Informatikaria	Gerentzia
120	Argitalpen Zerbitzua	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza Argitalpen zerbitzuko zuzendaritza
141	Nazioarteko proiektzioa	Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza
160	Kreditu orokorra	Gerentzia

BESTE ARAU BATZUK

SEKTORE PUBLIKOKO
KONTRATAZIOARI BURUZKO ARAUTEGIA

KONTRATAZIOARI BURUZKO ARAUTEGIA

Oro har, honako xedapen hauek dira aplikatu beharrekoak:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak espainiar ordenamendu juridikora ekartzekoa.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/07 Legea partzialki garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, eta abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak aldatu zuena, zenbait agindu aldatzen dituena.

Euskal Herriko Unibertsitatearen arloan:

- 17/2011 Dekretua, Otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez onartu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak
- EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 28koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena.
- 1/2022 Instrukzioa, 2022ko ekainaren 27koa, UPV/EHUko Gerentearena, UPV/EHUko kontratazio txikia kudeatzeari buruzkoa.

KONTRATU MOTAK

UPV/EHUko gehien erabilitako administrazio kontratuak honako hauek dira:

- Obra kontratuak, obra bat egiteko edo SPKLren I. eranskinean zerrendatutako lanen bat egiteko
- Hornidura kontratuak, produktuak edo ondasun higikorrek erosteko.
- Zerbitzu kontratuak. SPKLren 17. artikulua araberak, kontratu horien bidez, prestazioak egiten dira, jarduera bat gauzatzeko xedea dutenak edo obra edo horniduraz besteko emaitza lortzera bideratuta daudenak. Horien barruan kontratistak zerbitzua modu jarraituan eta unitate prezioaren araberak egin beharrekoak sartzen dira.
- Herri lanen kontzesioko kontratuak. Horien bidez, kontzesiodunak obra kontratuaren objektua definitzen duten prestazioetako batzuk egiten ditu, horien barruan sartuta eraikinak birgaitzeko eta konpontzeko lanak, eraikitako elementuen kontserbazioa eta mantenimendua, eta haren aldeko kontraprestazioa, berriz, obra ustiatzeko eskubidea izaten da. Eskuarki, kontzesiodunak kanon bat ordaindu behar dio unibertsitateari kontrapartida gisa.
- Zerbitzuen kontzesiorako kontratuak. Horien helburua da kontzesiodunak obra exekuzioaz besteko zerbitzuak ematea eta kudeatzea, eta horren kontrapartida kontratuaren objektu

diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea da. Eskuarki, kontzesiodunak kanon bat ordaindu behar dio unibertsitateari kontrapartida gisa.

UPV/EHUn erabilitako kontratu pribatuak honako hauek dira:

- Finantza zerbitzuen eta aseguruen kontratuak.
- Aldizkarien, aldizkako argitalpenen eta datu baseen harpidetzak.

ESLEITZEKO PROZEDURAK

SPKLren 131. artikulua bost esleipen prozedura jasotzen ditu, eta sailkatzen ditu, alde batetik, erabiltzeko suposamendu espezifikorik behar ez duten prozedurak (irekia eta murriztua), eta, bestetik, SPKLn tasatutako suposamenduetan bakarrik erabil daitezkeen prozedurak (negoiazio bidezko lizitazio prozedura, publizitatearekin edo gabe, lehia elkarrizketa, eta berrikuntzarako elkarketa).

UPV/EHUK gehien erabilitako esleipen prozedurak honako hauek dira:

- Prozedura irekia: prozedura honetan, kontratuan interesa duen enpresa orok eskaintza aurkez dezake. Ez dago ez negoziatorik, ez elkarrizketarik lizitatzailerekin.

Prozedura honek hainbat modalitate dauzka, eta kasu bakoitzean erabili ahal izango dira bakar-bakarrik jarraian zehaztutako baldintza hauek ematen badira:

- Prozedura irekia: edozein kontratu esleitzeko erabil daiteke, haren balio estimatuaren zenbatekoa edozein dela ere.
 - Prozedura ireki sinplifikatua: soil-soilik erabiliko da 2.000.000,00 euroko edo hortik beherako balio estimatuko kontratuetan, obren kasuan, eta, 143.000,00 euroko edo hortik beherakoetan, zerbitzu eta horniduren kasuan. Funtsean irizpide objektiboen bidez esleitu beharko dira, aplikatzeko balio judizio bat egitea eskatzen duten irizpideen haztapena ezin delako izan % 25 baino handiagoa, prestazio intelektualen kasuan izan ezik, zeinetan % 45era arte igotzeko aukera izango baita.
 - Prozedura ireki sinplifikatua, obra kontratuaren balio estimatua 80.000,00 eurotik beherakoa denean, eta hornidura eta zerbitzuen kontratuena, berri, 35.000,00 eurotik beherakoa: Formularen aplikazio hutsen bidez zenbatu daitezkeen esleipen irizpideen bidez esleitu beharko da. Prozedura hau ezin da erabili izaera intelektualeko prestazioetan.
- Prozedura negoziatua: Prozedura honetan, publizitatearekin edo gabe eginda ere, negoziatio bat eman behar da, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan enpresa bakar batek parte hartzeko aukera eragotzi gabe; negoziatioa ahal denean bakarrik egingo da.

Administrazio baldintza zehatzen orrian negoziatio esparrua kontratuaren objektu diren alderdi ekonomikoen eta teknikoaren inguruan mugatu behar da. Ez dira negoziagarriak, ez kontratuaren objektua den prestazioaren gutxieneko baldintzak, ez eskaintzak baloratzeko erabiliko diren eta administrazio baldintza zehatzen orrian jasota dauden esleipen irizpideak.

Negoiazio bidezko lizitazio prozedura erabili ahal izango da, SPKLren 167. artikuluan jasotako suposamenduetan. Eta publizitaterik gabeko negoziatua, berriz, soilik SPKLren 167. artikuluan jasotako suposamenduetan erabiliko da.

Era berean, negoziazio bidezko lizitazio prozeduran, kontratua eskuratzeko interesa duten enpresa guztiek parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute. Kontratazio organoak administrazio baldintza zehatzen orrian eskatutako ahalmen eta kaudimen baldintzak betetzen dituzten enpresak gonbidatuko ditu, negoziatu beharreko proposamena aurkez dezaten, non eta ez den erabaki orrian bertan hautapen irizpide batzuk ezartzea, eskaintza aurkeztera gonbidatuko diren enpresen kopurua mugatzeko; hala balitz, gutxienez hiru hautagai gonbidatu beharko dira.

Aldez aurretik iragarki bidezko publizitaterik ez duen prozedura negoziatuan, kontratazio organoak lehendik gonbidatutako enpresek edo enpresak –gaitzen duen suposamenduaren arabera– aurkeztuko du(te) eskaintza.

KONTRATU TXIKIAK:

Kontratu txikiaren bidezko kontratazioa egin daiteke, baldin eta jarraian aipatutako baldintzak betetzen badira.

40.000 euroatik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuak (BEZ gabe) eta 15.000 euroatik beherako balio zenbatetsia duten hornidura eta zerbitzu kontratuak (BEZ gabe).

UPV/EHUK 50.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsian (BEZ gabe) egindako hornidura eta zerbitzu kontratuak, baldin eta ikertzeko, ezagutza transferitzeko eta berrikuntza jarduerak egiteko badira –Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 4ko 14/2011 Legean aurreikusitako baldintzetan– eta zerbitzu orokorretara eta azpiegituretara bideratzen ez badira, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen (2018ko uztailaren 4ko BOEa) azken xedapenetako berrogeita laugarrenaren arabera, zeinak berrogeita hamalaugarren xedapen gehigarriaren bidez SPKLa aldatzen baitu.

Kontratu hauek ezin dira izan urtebetetik gorakoak eta ezin daitezke luzatu.

Arau orokor gisa, kontratu txikia erabiliko da baldin eta premia puntual, noizbehinkako eta zehatzak, zeharo definitutakoak eta larriak bete behar badira.

Hona, kontratuok behar dituzten baldintzak:

- 1) Kontratazio organoaren txostena, kontratuaren beharra arrazoituz.
- 2) Justifikatu beharko da kontratuaren helburua ez dela bestelakotu, kontrataziorako arau orokorrak aplika ez dakizkion, eta kontratistak ez duela beste kontratu txikirik sinatu, aipatutako zenbatekoak banaka edo guztira gaindituko duenik. Kontratazio organoak egiaztatu behar du arau hori bete egiten dela.
- 3) Gastua onartu eta legokiokkeen faktura ere gehitu.
- 4) Kontratu txikien inguruko informazioa, gutxien dela, hiruhilekoan behin argitaratu beharko da. Kontratu mota honetarako argitaratu beharko den informazioak jasoko du, gutxienez, kontratuaren helburua, iraupena, adjudikazio zenbatekoa, balio erantsiaren zerga barne dela, eta esleipendunaren identitatea, kontratuak esleipendunaren identitatearen arabera ordenaturik.

Aurreko pasarteak aipatutako argitalpenetik salbuetsita egongo dira bost mila eurotik beherako balioa luketen kontratuak, beti ere kutxa finkoko aurrerapena edo ordainketa txikiak egiteko antzeko sistema erabilia ordaintzen badira.

1. eta 2. baldintzak ezingo dira eskatu, baldin eta kontratuen ordainketa kutxa finkoko aurrerapen sistemaren edo ordainketa txikiak egiteko antzeko beste baten bidez egiaztatzen bada, betiere kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik beherakoa bada.

KONTRATAZIOAREN KUDEAKETA: PROZEDURAREN FASEAK

Kontratazioa kudeatzeko prozesua

UPV/EHUrentzat gastua dakarten kontratazio guztiak justifikatu behar dira, eta kreditu egokia eta nahikoa eduki behar dute (SPKLren 28. eta 166. artikulua).

Hasiera batean, obrak emateko kontratuak eta zerbitzuak emateko kontratuak ez diote UPV/EHUri gasturik sortzen, enpresa kontratisten ordainsaria erabiltzaileek ordaintzen dutenetik baitator.

Labur esanda, kontratuetan enpresa kontratistak aukeratzeko prozedurak fase hauek ditu:

Prestatzeko fasea:

A) Espedienteen promotoreek aurkeztu beharreko dokumentuak:

1. Kontratuaren beharra, kontratazioaren egokitasuna eta eraginkortasuna, eta kontratazioaren objektuarekiko harreman zuzena, argia eta proportzionala (SPKLren 28. art. eta 116.4 art. e) letra) justifikatzeko memoria: adierazi behar da zer nahi den kontratatu, zergatik, zertarako eta zergatik komeni den hori kontratatzea.
2. Bitarteko gabeziei buruzko txostena (zerbitzu kontratuak) (SPKLren 116.4 artikulua f) letra)
3. PTT (SPKLren 116.3 art.).
4. Kontratazioa bultzatzen duen zerbitzuko teknikariak izenpetutako adierazpena, non gutxienez honako hau adieraziko baita: "baldintza teknikoaren orrian jasotako baldintza teknikoak kontratazio publikoari buruzko arauan ezarritakoaren arabera daude idatzita; beraz, eragile ekonomiko interesdun orori kontratazio prozeduran berdintasun baldintzetan parte hartzea ahalbidetzen zaio eta lehiari ez zaio inolako trabarik jartzen justifikaziorik gabe.
5. Kontratuaren objektua pertsona fisikoek (herritarrek oro har edo botere esleipendunaren langileak) erabili beharreko prestazio bat bada, adierazpen horri honako hau gehitu beharko zaio: "baldintza horiek SPKLren 126.3 artikuluan aipatutako irisgarritasun irizpideak betetzen dituzte".
6. Gainera, kontratuaren objektuak ingurumenari eragiten badio edo eragin badietzaioke, hau gehituko da: "baldintza teknikoak ingurumen jasangarritasun eta babes irizpideak aplikatuta zehaztu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginak (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako

Errege Dekretuak onartutakoa) bere 3. eta 4. artikuluetan araututako definizio eta printzipioen arabera”.

7. Kreditu nahikoa egotearen egiaztatzea (SPKLren 116. 3 art.). Kontratuak UPV/EHUrako gasturik badakar, kontabilitateko izapidea egingo da, kreditua erreserbatzeko (“A” kontabilitateko agiria). Kontratuaren exekuzioa urtebete baino gehiago luzatzen bada edo haren exekuzioa kontratazioaren izapideak hasi eta hurrengo urtean hasten bada, eraginpeko urtealdietan kreditua dagoela adierazten duen ziurtagiria izan beharko da.
8. Eskatutako sailkapenaren eta/edo kaudimen baldintzen justifikazioa (ekonomikoa eta finantzakoa – teknikoa edo profesionala) (SPKLren 116.4 artikuluen b) eta c) letrak) (Giza baliabideen edo baliabide materialen atxikipena barne). Ekonomia kaudimenaren eskakizun gisa, balio zenbatetsiaren halako bat eta erditik gorako negozio bolumena justifikatu beharko litzateke urtean (SPKLren 87. artikuluen a) letra).
9. Esleipen irizpideen aukeraketaren justifikazioa: zer abantaila dituzte irizpide horiek eskaintza onenera iristeko; zergatik erabili behar da irizpide hori eskaintzak baloratzeko. Era berean, justifikazio memoriaren sinatzaileak adierazi beharko du irizpide horiek SPKLren 145.5 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztela.
10. Esleipen irizpideak baloratzeko formulen aukeraketaren justifikazioa (SPKLren 146.1 artikuluen b) letra).
11. Kontratuaren balio zenbatetsiaren kalkuluen justifikazioa, hura osatzen duten kontzeptu guztiak aipatuta (laneko kostuak ere sartuta, halakorik balego) (SPKLren 116.4 artikuluen d) letra).

B) Kontratazio zerbitzua

1. Kontratazio Organoaren erabakia espedienteari hasiera emateko.
2. PCAP (SPKLren 116.3 art.). “Kontratauren klausula espezifiko batzuei buruzko informazioa” duten eranskinak behar bezala beteta aurkeztu behar dira.
3. Hautatutako esleipen prozeduraren justifikazioa (SPKLren 166.4 artikuluen a) letra eta 116.3 artikulua).
4. Espedientea onartzeko erabakia (SPKLren 117. artikulua).
5. Lizitazioa EBAOn argitaratzea (SARA kontratua bada, beti, eta SARA kontratua ez bada, aukeran) eta kontratatzailearen profilean. Horrez gainera, EBAOra bidaltzearen dataren justifikazioa (SPKLren 135. art.). Espedientea onartzeko erabakia (SPKLren 117. artikulua).

Lizitazio, esleipen eta formalizazio fasea

1. Eskaintzak aurkeztea, adierazitako epean.
2. Kontratazio mahaiaren bilerak, aktetan jasota geratuko direnak.

3. Eskaintzen balioespena eta sailkapena.
4. Kontratazio Mahaiaren txosten teknikoak eta proposamenak.
5. Esleipenerako hautatuak izan direnek dokumentazio aurkeztea.
6. Esleitzea eta esleipenaren emaitza argitaratzea eta jakinaraztea. Une horretan, kreditu eskuragarritasunaren kontabilitate izapidea egingo da (kontabilitateko "D" agiria).
7. Kontratistaren eta UPV/EHUren arteko kontratua formalizatze eta formalizazioa argitaratzea.

Exekuzio faseak

1. Kontratua betetzea, adostutako epean edo epeetan.
2. Obra, hornidura edo lana onartzea, onarpen aktaren sinaduraren bidez.
3. Prezioa ordaintzea, adostutako baldintzetan (une honetan, ordainketa aginduaren kontabilitateko izapidea egingo da: kontabilitateko "O" agiria).
4. Berme epea, hala behar izanez gero, kontratuak betetzen direla bermatzeko utzitako behin betiko fidantzak itzuliko dira.

Hurrenkera horretan gorabeherak sortzen dira askotan enpresa esleipenduna hautatzeko tramitazioan (errekurtsoak), bai eta kontratuak exekutatzeko fasean direnean ere (exekuzio epea bertan behera utzi ustekabean etorritako egoerengatik, exekuzio epea gehitzea, kontratua aldatu edo kontratu klausulak bete ez). Gorabehera horiek beren tramiteak eskatzen dituzte, eta Kontratazio eta Erosketen Zerbitzuaren bidez egin behar dira.

ONDAREAREN KUDEAKETARI BURUZKO ARAUTEGIA

ONDAREARI BURUZKO ARAUTEGIA

1. Lege oinarriak

1. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuetako 222. artikulua honakoa dio:
 1. UPV/EHUren ondarea unibertsitateak jabetzan edo titularitatean dituen ondasun eta eskubideek osatuko dute, bai eta etorkizunean eskuratzen edo esleitzen zaizkionek ere, betiere arau orokorrei men eginez.
 2. UPV/EHUK jasotzen dituen dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarri eta bibliografikoa unibertsitatearen ondarean sartuko dira, nahiz eta horrek ez duen eragotziko gerora haien erabilera beste erakunde batzuei esleitu ahal izatea.
2. Era berean, UPV/EHUren Estatutuetako 222. artikulua honako hau arautzen du bosgarren puntuari:

“UPV/EHUK bere ondarea eratzten duten ondasun eta eskubide guztien inbentarioa izango du, eta aldian-aldian eguneratuko”.
3. UPV/EHUren Estatutuetako 234. artikulua honako hau zehazten du:

Gastuen egoera orrian gastuaren kontzeptu guztiak eta zenbatekoak zehaztuko dira. Honako xehetasun hauek adierazita sailkatuko dira gastuak:

 - a) Gastu mota.
 - b) Programa edo helburua.
 - c) Gastu gunea.
 - d) Bestelakoak, unean unean erabakiko direnak.

Betiere, gastu arrunta eta inbertsio gastua bereiziko dira.

2. Ondarearen kudeaketa UPV/EHUn

Ondarearen kudeaketa oinarritzko irizpide hauen arabera egiten da:

1. Ondarearen kudeaketak fase hauek dauzka:
 - a) Gune organikoek inbentariatu ditzaketen elementuak erostea eta inbentario ofizialean sartzea.
 - b) Erabilera eta egoeraren eta erabileraren kontrola.
 - c) Inbentario ofizialetik kentzeko proposamena, horretarako onartuko diren arauak jarraiki.
2. Ondarearen kudeaketa Gerentziak kontrolatzen du, Kontabilitate Zerbitzuaren bitartez, eta horretarako UPV/EHUren gune organikoek ondarea nola gestionatzen duten gainbegiratzen du.
3. Ondarearen kudeaketan erantzukizun maila hauek daude:
 - a) Gune organikoen erantzukizuna: gune organiko iraunkorraren aurrekontuarekin eta bere menpe dauden aldi baterako gune organikoen aurrekontuekin erositako ondareko elementuak. Horiez gain, organikoen erantzukizuna dira zerbitzu zentralak haien zainketa, organikoentzat, erositako elementuak.

- b) Campusetako gerenteordetzen erantzukizuna: campusean kokatutako gune organiko iraunkorren ardurapeko elementuak.
 - c) Kontabilitate Zerbitzuaren erantzukizuna: UPV/EHUren inbentario ofizialean sartuta dauden elementu guztiak.
4. Elementuak inbentario ofizialean sartzeko, bertan eguneraturik jarraitzeko eta, beharrezkoa izanez gero, inbentariarik kentzeko prozedurak Gerentziak ezarriko ditu, Kontabilitate Zerbitzuaren proposamenez.
 5. Ekipoak inbentarioan sartu eta gero, kasuan kasuko etiketa ofiziala jarriko zaie identifikatzeko.
 6. Ekipoak beste campus, solairu, eraikin edo lokal batera eramaten badira, kokaleku aldaketa hori eguneratu beharko da ekipoaren inbentario fitxan.

3. Inbentarioan sartu beharreko ondasunak

1. Ondasun inbentariagarriak dira hiru baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - a) UPV/EHUren gune organikoen aurrekontuaren kargura erosi dira, edo dohaintzan jaso dira, jabetzaren lagapen osoa formalki eginda.
 - b) Ondasunaren ezaugarriak direla eta, urtebete baino gehiago erabili ahal izango da gutxienez, berdin da noiz erositakoa den.
 - c) Ondasunaren balio indibiduala 150,25 euro baino gehiago da.

Hiru baldintzok bete ez arren, elementu baten ezaugarriengatik egoki ikusten bada elementu hori UPV/EHUren inbentario ofizialean sartzea, eta Kontabilitate Zerbitzuak hala proposatzen badu, Gerentziak inbentarioan sartu ahal izango du, horretarako dauden arauak jarraiki.

2. Ikerketa proiektuen emaitzak inbentarioan sartuko dira baldin eta jabetza intelektuala UPV/EHUrena bada, legearen arabera dagokien jabetzaren erregistroan sartu badira, eta unibertsitateari baliabide ekonomikoak ekarri ahal badizkiote. Inbentarioan sartuko den proiektuaren balioa kalkulatzeko, proiektuko gastu arrunten batura egingo da, Kontabilitate Zerbitzuak Gerentziari aurkeztutako proposamenaren arabera.

4. Inbentario kontuak, bizitza baliagarriak eta amortizazio portzentajeak.

Unibertsitateko inbentarioaren elementuak hurrengo taularen kontuen arabera sailkatu eta amortizatuko dira:

Kontua	Deskribapena	Bizitza baliagarria	Urteko amortizazioa (%)
2060	Aplikazio informatikoak	6	16,67%
2070	Alokairuan erabili edo erabileran utzitako aktiboen gaineko inbertsioa	INDIBIDUALA	INDIBIDUALA
2090	Doaneko erabilera lagapenak	INDIBIDUALA	INDIBIDUALA
2100	Lurzoru eta ondasun naturalak	0	% 0,00

2110	Eraikuntzak, bizitza erabilgarria 50 urte	50	% 2,00
2111	Eraikuntzak, bizitza erabilgarria 100 urte	100	% 1,00
2120	Azpiegiturak	50	% 2,00
2140	Makineria	15	% 6,67
2141	Lanabesak	5	% 20,00
2150	Instalazio teknikoak	10	% 10,00
2160	Altzariak	10	% 10,00
2161	Bulegoko ekipoak	5	% 20,00
2162	Komunikazio ekipoak	6	% 16,67
2163	Kirol ekipoak	10	% 10,00
2164	Ekipamendu medikoa	10	% 10,00
2170	Informazioa prozesatzeko ekipoak	3	% 33,33
2180	Garraio elementuak	5	% 20,00
2190	Funts bibliografikoak	10	% 10,00
2191	Laborategiko ekipoak	15-10	% 6,67-10%
2192	Ikus-entzunezko ekipoak	5	% 20,00
2193	UPV/EHU funts artistikoak	10	% 10,00
2194	Ekipamendu zientifiko aurreratua	5	% 20,00
2199	Askotariko materialak ibilgetua	10	% 10,00

5. Inbentarioan sartu beharreko ondasunen balioa.

Ondasunen balio indibiduala irizpide hauen arabera kalkulatu da:

1. UPV/EHUK erositako ondasunen kasuan, balio indibiduala izango da erosketaren kostua gehi ondasuna martxan ipini arte izandako gastu guztiak.
2. UPV/EHUK egindako ondasunen kasuan balio indibiduala ekoizpenaren kostua izango da, hau da, ondasuna egiteko erosi ziren materialen prezioa.
3. UPV/EHUri dohaintzan emandako ondasunen kasuan, balio indibiduala izango da ondasunaren salmenta balioa.
4. Inbentarioan sartu beharreko ondasunaren balio indibidualari gehituko zaio jasana bai baina kengarria ez den BEZa, unibertsitateak zergak kitatzeko une bakoitzean aplikatzen duen mekanismoaren arabera. Gauza bera egingo da elementua erostean sortzen den beste edozein tasarekin.

6. Inbentarioa egiteko epea

Aipatutako baldintzak betetzen dituen faktura **inbentarioan jaso** behar denez, behin kontabilizatu ondoren, inbentariorako erabiltzen den programa informatikoan desglosatuko da hilabeteko epean. Faktura kontabilizatzen den egunean irekiko da epe hori.

7. Zerbitzuak edo ondasunak erostea, inbentarioan sartuta dagoen ondasun bat erabilia prezio osoa edo zati bat ordaintzeko

1. Irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Erosten den ondasuna bere benetako balioaz erregistratuko da, trukean eman den ondasunaren balioa kendu gabe. Gainera, balio hori handitu ere egin ahal izango da, gastuen, tasen eta zeharkako zergen eraginez, gorago azaldu bezala.
- b) Trukean emango den ondasuna inbentariotik kenduko da, une horretara arte inbentario ofizialean izan duen kontabilitate balio garbiaren arabera.
- c) Elementu berria inbentarioan sartu eta trukean eman dena inbentariotik kentzearekin batera, eragiketa horiek ondarearen kontabilitatean erregistratuko dira, UPV/EHUren ondarearen balioa eguneratuta egon dadin.

Trukean eman den ondasuna beti kenduko da inbentariotik, eta eragiketak ere beti erregistratuko dira ondarearen kontabilitatean, kontuan hartu barik erositako ondasuna inbentarioan sartu behar den ala ez.

8. Inbentarioan sartuta dauden ondasunen balioa berriz aztertzea.

Inbentarioan sartuta dauden ondasunen balioa berriz aztertuko da honako kasu hauetan:

1. Hobekuntza lanen bat egiten denean, lanaren beraren edo haren eragina jasaten duen ondasunaren ezaugarrien ondorioz, ondasunaren balioa handitu egiten duena, edo haren erabilera epea luzatu egiten duena. Hobekuntza lanaren kontabilizazioa egiten denetik jaso beharko da aldaketa hori kontabilitatean.
2. Ondasunarekin zerikusirik ez daukaten gorabeherengatik komenigarri ikusten bada balioa berriz aztertzea, esate baterako, ezaugarri berberak dauzkaten ondasunen balioa handitu egin delako. Halakoetan, balioaren aldaketa UPV/EHUren kontabilitatean jaso beharko da, igoeraren eragiketa kontabilizatuta.
3. Eraikinetan egiten diren lanen edo konponketen kasuan, ondasunaren balioa handituzat emateko beharrezkoa izango da lan edo konponketa horien azken emaitza hauetako bat izatea:
 - a) Handitu egin da espazio erabilgarria eraikinean.
 - b) Kanpoko egitura konpondu edo hobetu egin da.
 - c) Eraikinean integratuta dauden makinak jarri dira, adibidez berogailua, aire girotua eta igogailuak. Oro har, eraikinetik aparte izateko arrazoirik ez duten makinak izaten dira.

9. Ikerketa proiektuen emaitzen tratamendua.

1. Ikerketa proiektuen emaitzak inbentario ofizialean sartu ahal izango dira, ibilgetu ez-material gisa, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Ikerketa proiektuen emaitzaren jabetza intelektuala unibertsitatearena da.
 - b) Ikerketa proiektuaren emaitza erregistratuta dago patenteen bulegoan, UPV/EHUren ondare ekonomikoko elementu gisa aitortua eta publikoki akreditatua izan dadin. Gainera, unibertsitateari baliabide ekonomikoak ekar diezazkioke, beste pertsona fisiko edo erakunde juridiko batzuei ustiapen eskubidea lagatzeko edo errentan emateko kontratuen bidez.
2. Inbentario ofizialean ibilgetu ez-material gisa sartuko den ikerketa proiektuaren balioa kuantifikatu ahal izateko, proiektua aurrera eramanean den urteetan kontabilizatu diren gastu arruntak batuko dira. Jabetza erregistratzeko tramiteen gastuak ere gehituko zaizkio proiektuaren balioari.
 3. Ikerketa proiektu baten aurrekontuen kargura erosten diren ondasunak inbentarioan sartuko dira erosten diren unean, aurreko bi paragrafoen arabera proiektuari ematen zaion tratamendua edozein dela ere.

PFEZaren ATXIKIPENEI BURUZKO ARAUTEGIA

PFEZaren ATXIKIPENEI BURUZKO ARAUTEGIA

Hemen bakarrik azalduko ditugu UPV/EHUko plantilakoak ez diren baina unibertsitatearentzat zerbitzuren bat egiten duten pertsonen egin beharreko atxikipenak. Esan bezala, pertsona hauek ez dira unibertsitatekoak, eta, hortaz, ez dute nominarik bertan.

UPV/EHUko langileei atxikipena egingo zaie taularen arabera, hilabete bakoitzeko nominari aplikatuta. Horretarako, kontuan izango dira ordainsari guztiak eta hartzailearen zirkunstantzia pertsonalak.

1. BEKAK

Hiru Lurralde Historikoetako foru arautegiek adierazten dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzetik salbu daudela beka publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateek emandako beka jasotzen dituzten pertsonak, beka hauek Espainian ikasteko nahiz atzerrian ikastekoak izan, hezkuntza sistemako edozein maila eta gradutan, unibertsitateko hirugarren zikloan barne.

Horrelako bekei ez zaie inolako atxikipenik aplikatu behar, baina aitortu egin behar dira. Estatuko ikasleentzako beka 190 ereduaren deklaratzeko dira, L giltzarrian, 10 azpiklabearen, eta atzerriko ikasleentzako 296 ereduaren, 25 giltzarrian, 03 azpiklabearen. Informazio hori UXXI unitatean gehitzen da, Datu fiskalak/Beste eredu batzuk fitxan gastu-frogagiriaren bidez.

Hortik kanpoko ikasketetarako bekei, berriz, PFEZaren atxikipena egin behar zaie. Oro har, lan etekinak izango dira hartzailearentzat, eta ondorioz, ordaintzen direnean atxikipena egingo zaie.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9.9 artikulua hau ere gehitzen du:

Salbuetsita egongo dira, halaber, aurreko paragrafoan aipatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta banku-fundazioek prestatzen ari diren ikertzaileen estatutua onartzen duen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuan deskribatutako eremuan ikertzeko ematen dituzten beka publikoak, bai eta erakunde horiek herri-administrazioen zerbitzura dauden funtzionarioei eta gainerako langileei eta unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileei ikerketarako ematen dizkietenak ere.

2. HIRUGARRENEN UNIBERTSITATEARI ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Hirugarrenen batek unibertsitateari zerbitzu bat egiten dionean, horregatik ematen zaion ordainsaria bi modutan trata daiteke:

- Jarduera ekonomiko baten etekin gisa
- Lan etekin gisa

Bai batean, bai bestean, ordainketek euskarri dokumental egokia izan beharko dute.

Oro har, jarduera ekonomikoaren kasuan faktura bat izango da, eta lan-errendimenduaren kasuan, ordainagiria.

2.1- HIRUGARREN BATEK UNIBERTSITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK, JARDUERA EKONOMIKOAREN ETEKIN GISA HAR DAITEZKEENAK

Etekinak jarduera profesional baten ordaina direnean, diru sarrerei **% 15eko** atxikipena egingo zaie; jarduera profesionaletan hasten diren zerga ordaintzaileen kasu berezian, atxikipena **% 7koa** izango da, bai jarduerak hasten dituzten urtean eta baita hurrengo bietan ere.

% 7ko atxikipena aplikatzeko, etekinen hartzaileak bere egoera jakinarazi beharko dio unibertsitateari, dokumentu idatzi eta sinatu batekin.

Salbuespen batzuetan **% 1** aplikatuko da, esate baterako nekazaritza eta abeltzaintza jardueren zenbait etekinetan eta estimazio objektiboaren erregimena duten zenbait jarduera enpresarialen etekinetan.

Alokairutik eratorritako etekinei, berriz, **% 19** aplikatuko zaie.

Sariei ere **% 19aren** atxikipena egingo zaie. Saria 300 eurokoa edo gutxiagokoa bada, ez zaio atxikipenik egingo.

2.2- HIRUGARREN BATEK UNIBERTSITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK, LAN ETEKINTZAT HAR DAITEZKEENAK

Lan etekintzat hartzen da unibertsitateak hirugarren bati ordaintzen diona noizik behin honako kontzeptu hauetan emandako zerbitzuengatik:

- Ikasleei emandako laguntzak, baina 1. ataletik (Bekak) kanpokoak direnak, eta betiere deialdi baten barruan eta erabaki baten bidez esleitu badira. Laguntzok lan etekintzat hartuko dira eta gutxienez % 2ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik. Kasurik ohikoena unibertsitatean egiten diren praktikak dira, nahiz eta Bekatzat hartzen ez den beste edozein laguntza atal honetan sartuko litzatekeen.
- Irakasle-ikertzaileei doktorego tesietan eta epaimahaietan parte hartzeagatik egindako ordainketak, eta bigarren hezkuntzako irakasleei hautaprobetako epaimahaietan egoteagatik egindako ordainketak lan etekintzat hartuko dira eta % 2ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik.
- Beste unibertsitate batzuetako irakasleei noizik behin hitzaldiak emateagatik, eskola magistralak emateagatik, ikerketa proiektuetan kolaboratzeagatik edo beste edozelako lankidetzagatik egindako ordainketak lan etekintzat hartuko dira eta % 15eko atxikipena egingo zaie.
- Irakasle izan gabe une jakin batean unibertsitatearekin kolaboratu dutenei % 2ko atxikipena egingo zaie PFEZagatik, unibertsitateak bere zerga betebeharrak betetzeko.

2.2-1. ZERGAK BESTE HERRIALDEREN BATEAN ORDAINTZEN DITUZTEN HIRUGARRENAK

Bizileku iraunkorrik gabeko hirugarren ez-egoiliar batek Espainian egindako jarduera ekonomikoetatik eskuratutako etekinek ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu

beharko dute (aurrerantzean, EEEZ); gaur egun, % 19ko zerga tasa da Europar Batasunean, Norvegian eta Islandian eta % 24 gainerako herrialdeetan.

Erregimen orokor hori aplikatuko da, baldin eta ez badago aplikatu beharreko zerga erregimena erabakitzen duen nazioarteko arautegirik edo nazioarteko zergapetze bikoitzerako hitzarmenik (ZBH). Halako arautegi baten ondorioz EEEZren atxikipena aplikatzen ez denean, hirugarrenak aurkeztu beharko du zerga egoitzaren egiaztagiria, dagokion zerga agintaritzak emana. Bertan, argi eta garbi adierazi beharko da zergaduna hitzarmenean definitutakoaren moduko egoiliarra dela. Egiaztagiriak urtebeterako balioa dauka.

UPV/EHUri zerbitzuak eman dizkion hirugarren horrek EBko herrialde batean badauka zerga egoitza, eta fakturari BEZa aplikatzen badio, unibertsitateak bere buruari jasanaraziko dio eragiketari dagokion BEZa.

Zalantza izanez gero ZBH baden edo ez, galdetu Kontabilitate Zerbitzuan.

3. UPV/EHUtik KANPOKO HIRUGARRENEN DIETAK

Oro har, eta ahal den heinean, UPV/EHUK gestionatu, tramitatu eta ordainduko ditu garraio kolektiboetan eta hoteletako egonaldietan unibertsitateetik kanpoko hirugarrenek egindako gastuak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasotako dieta eta gastuen erregimena EZ zaie aplikatu behar jarduera profesional baten etekinei. Beraz, ez zaie deitarik ordainduko profesionalari, eta, beraz, joan-etorrien eta mantenuaren gastuak kobratu nahi badituzte, sartu beharko dituzte zerbitzuengatik kobratuko duten zenbatekoaren barruan, eta hortaz, fakturan joango dira eta dagokion atxikipena egingo zaie.

Joan-etorriengatik eta mantenuagatik hirugarrenei ordaindutako kopuruak, hirugarren horiek profesionalak ez badira, lan etekintzat joko dira, eta PFEZen atxikipena egingo zaie, salbu eta gastuak fakturen bidez justifikatuta daudenean.

Horrez gain, norbere autoa joan-etorrietarako erabiltzeagatik sortutako gastua beti da lan etekina, eta, beraz, PFEZaren atxikipena egin behar zaio.

4. NOLA ZENBATU PFEZ DUTEN FAKTURAK

Aplikaturako PFEZ motaren arabera honako deskontu hauek aplikatuko dira:

KONTUA	DESKRIBAPENA	EREDUA	GAKOA	AZPIGAKOA	
32475102	ETEKINEN % 15eko PFEZa JARDUERA EKONOMIKOAK	190	G	1	Jarduera ekonomikoaren etekina, fakturarekin
32475102	ETEKINEN % 7ko PFEZa JARDUERA EKONOMIKOAK	190	G	3	Jarduera ekonomikoaren etekina, lehenengo urte bietan fakturarekin
32475101	IKAST., HITZALD., MINT., ETA ANTZEKOETAKO IRAKASLEEN PFEZa (% 15)	190	F	2	Ikastaroak, hitzaldiak... fakturarekin edo gabe.
32475106	LAN ETEKINEN PFEZa (% 2)	190	A		Epaimahaiak, tesiak, kolaborazioak
32475107	ALOKAIRUEN % 19ko PFEZa	180	C		Ondasun higiezinaren alokatzeak eta azpialokatzeak.
32475108	ESTIMAZIO OBJEKTIBOAREN PFEZa (% 1)	190	H	1	
32475111	SARIEN PFEZa (% 19)	190	K	1	300€-tik gorako sariak
32475109	EEEZ: EZ-EGOILIARRAK, EUROPAKO BATASUNEKOAK (% 19)	296	20	1	Europar Batasuna, Norvegia eta Islandia
32475109	EEEZ: EZ EGOILIARRAK, EUROPAKO BATASUNETIK KANPOKOAK (% 24)	296	20	1	Gainerako herrialdeak
	ESTATUKO IKASLE SALBUETSIEK BEKAK	190	L	10	
	ATZERRIKO IKASLE SALBUETSIEK BEKAK	296	25	03	